

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

5620

AGINDUA, 2023ko abenduaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2023ko azaroaren 21eko Agindua, eta karrerako funtzionario izendatzen baitira iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangai berriak. 2023ko azaroaren 21eko Aginduaren bidez karrerako funtzionario izendatu ziren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaiak.

Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 21eko Aginduaren III. eranskinean (zeinaren bidez karrerako funtzionario izendatzen baitira Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaiak) jasota dago nori atzeratu zaion karrerako funtzionario izateko izendapena, ezin izan direlako ebaluatu agindu horien 8.3 eta 8.4 oinarrietan aurreikusitako mediku-azterketan; hala ere, atzeman da III. eranskin horretan agertzen diren pertsonetatik bi ebaluatu eta gai moduan kalifikatu direla 2023ko abenduaren 1a baino lehen, eta, beraz, karrerako funtzionario izendatu behar dira 2023ko azaroaren 21eko Aginduan egindako gainerako izendapenen ondorio berberekin.

Bestalde, Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez, sailburu beraren 2023ko urriaren 30eko Agindua aldatu da. Agindu horren bidez, argitara eman zen iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan, Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitutakoan, hautatutako pertsonen bigarren zerrenda osagarria, bai eta deialdian eskatutako baldintzak ez betetzeagatik edo uko egiteagatik karrerako funtzionario izendatzeko eskubideak indargabetzen dituzten hautatutako pertsonen bigarren zerrenda ere. Horren ondorioz, beste pertsona batzuk sartu dira hautatutakoen zerrendan.

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen 9. oinarrian zehaztutakoarekin bat etorritik, hautatutako pertsona berriek deialdi horietan ezarritako parte hartzeko baldintza orokorrak eta espezifikokoak betetzen dituztela egiaztatu eta osasun-azterketa gainditu ondoren, karrerako funtzionario izendatu behar dira.

Beraz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntzako sailburuaren 2023ko azaroaren 21eko Agindua aldatzea, zeinaren bidez karrerako funtzionario izendatu baitziren Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako izangaiak. Aldaketa hauek egingo dira:

III. eranskinetik kanpo uztea eta I. eranskinean sartzea (Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikokoetako eta Diseinuko, Maisu-maistren eta desagertzeaz dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketako

irakasle teknikoen kidegoetako karrerako funtzionario izendatzen diren pertsoneri buruzkoan, alegia), Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsona hauek:

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako irakasleak.

Espezialitatea: Fabrikazio mekanikoko antolamendua eta proiektuak.

NAN	Abizenak eta izena	EPZ
*** 8070**	Ugarte Aurrecochea Asier	44680709 35A2410

Kidegoa: Lanbide Heziketako irakasle teknikoak, desagertzeak.

Espezialitatea: Gizartearentzako zerbitzuak.

NAN	Abizenak eta izena	EPZ
***5289**	Ojinaga Anasagasti Miren Gotzone	72252891 46A2411

Lehen atal honetan jasotako pertsonen izendapenek eta jabetza-hartzeek 2023ko abenduaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak.

Bigarrena.– Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko Aginduaren bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta maisu-maistren kidegoetako karrerako funtzionario izendatzea. Hona hemen zerrenda:

Kidegoa: Maisu-maistrak.

Espezialitatea: Gorputz Hezkuntza.

NAN	Abizenak eta izena	EPZ
***8433**	Azkargorta Pradera Gaizka	78884333 35A2409

Kidegoa: Maisu-maistrak.

Espezialitatea: Lehen Hezkuntza.

NAN	Abizenak eta izena	EPZ
*** 9804**	San Pedro Uriondo Arantzazu	14598049 46A2409

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako irakasleak.

Espezialitatea: Ingelesa.

NAN	Abizenak eta izena	EPZ
***3422**	López Vázquez Virginia	44134222 68A2410
***8665**	Intxausti Aldana Gotzone	30586654 02A2410

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako irakasleak.

Espezialitatea: Filosofia.

NAN	Abizenak eta izena	EPZ
***3403**	Goenaga Oiarzabal Miren Amaia	72434035 24A2410

Kidegoa: Bigarren Hezkuntzako irakasleak.

Espezialitatea: Gaztelania eta Literatura.

NAN	Abizenak eta izena	EPZ
***2243**	Macua Chana Roberto	22722435 13A2410
***4147**	García Villar Montserrat	22741470 35A2410
***6426**	Olaskoaga De Castro Amaia	72464266 02A2410

Hirugarrena.– Hezkuntzako sailburuaren 2022ko azaroaren 30eko Aginduaren bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan hautatutako honako pertsona hau Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten Kidegoko karrerako funtzionario izendatzea:

Kidegoa: Lanbide Heziketako sektore bereziatako irakasle espezialistak.

Espezialitatea: Ile-apainketa.

NAN	Abizenak eta izena	EPZ
***3178**	Bidaurratzaga Undabarrena Goizalde	78931783 02A2411

Laugarrena.– Bigarren eta hirugarren ataletan aipatutako pertsonen izendapenek agindu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituzte ondorioak; pertsona horiek egun horretan hartu beharko dute jabetza, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Bosgarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioko Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko abenduaren 13a.

Hezkuntzako sailburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.